

7. ZATIA: FUNTSEZKO BALIABIDEAK - CANVASEan hobetu

Zein dira behar dituzuen elementu garrantzitsuenak zuen proiektuak funtziona dezan?

Baliabide fisikoak:

Zaborrontzien baitan kooperatibaren txatela bereizten duen sensore batzuk beharko ditugu, Agrobiziren bazkideak horrela puntuak jasotzeko, gure supermerkatuan saltzerako orduan deskontuak jasotzeko.

Era berean, sentsoreak dituzten kontainer bereziak baliatu beharko ditugu.

Horretaz aparte, behar izango dugu materia organikoa fertilizante ekologikoetan bihurtzen duen makina. Makina hauek zenbait enpresa egiten dituzte maila internazionalen, baina litekeena da HORSE AD25 makina erostea, ImpactBioenergy enpresa estatubatuarrek egindakoa.

Gure enpresarako espazio bat beharko dugu zona industrial batean horrela makinaria kokatzeko eta bezeroei laguntza pertsonala eskaintzeko.

Giza baliabideak:

Giza baliabidetaz, beharrezkoa izango da indar fisikoa duten pertsonak gure fertilizanteen kutxa eta zaku pisutusak kargatzeko eta lekuz mugitzeko. Garrantzitsua izango da ere enpresaren zuzendaritza eta nekazari espezializatuen laguntza, barazki eta fruten produkziarako. Aldi berean, makina guztien funtzionamendua ziurtatzen eta gainbegiratzen duten langileak beharko ditugu.

Finantza baliabideak:

Gure enpresa aurrera eramateko, lehenengo inbertsio handi bat izan beharko dugu makinaria erosteko. Inbertsio hau kooperatibistek eta proiektuan interesatzen diren enpresak egingo dute. Hala ere, proiektu ekologikoa izatean, udaletxeak diru-laguntzak eskaintzea posiblea izango litzateke edo Eusko Jaurlaritzak ere inbertizeko gai izan litzateke.